

## **BALIO PROPOSAMENA:**

Paylon taldearen ideia garai digital honetako beharrak asetzeko sortua izan da. Interneten informazioa aurkitzea erreza da gaur egun, baina informazio hau kudeatzea eta egoki dagoena aukeratzea batzuetan nahiko zaila egiten da. Horregatik, gure enpresak Webgune bat sortuko du, non erabiltzaileek beraien lanak, diseinuak, proiektuak, animazioak, planoak, softwareak ... igotzeko aukera izango dituzten, eta beste erabiltzaile batzuek hauek erosteko aukera izango dute. Webguneak hainbat hizkuntza desberdin edukiko ditu aukeran, euskara barne, eta erabiltzaileek tresna desberdinak edukiko dituzte eskura aplikazioa ahalik eta errazena izateko, hala nola, txat bat beraien artean hitz egiteko eta adostasun batera iritsi ahal izateko. Gainera, webgunera igotzen den guztia egiazkoa dela frogatuta egongo da, iruzurrik edo engainurik gertatu ez daitezela.

Idea hau hainbat arazo konpontzeko baliagarria izan daiteke. Alde batetik, eskolan edo ikastolan atzeratuta edo arazoekin doazen ikasleek eskuragarri izango dituzte beste ikasle batzuen apunteak beraien ikaste prozesua errazteko. Unibertsitatean ikasten ari diren ikasleek beste urte batzuetako proiektuak edo informazioa eskuragarri izango dituzte oinarri bezala erabiltzeko. Helduek hainbat diseinu, plano edo software edukiko dituzte webgunean, beraien lanean aurrera egiteko baliagarriak izan daitezkeenak. Gainera, Euskara bultzatzeko tresna dela ere esan daiteke; gaztelerazko, ingelerazko, frantseseko... testuak euskaratzeko aukera emango diegu erabiltzaileei. Elkarbizitzari dagokionez, bezeroek beraien artean hitz egiteko eta ideiak trukatzeko aukera izango dute, beraz, webgunea sozializatzeko eta lagun berriak egiteko ere baliagarria izan daiteke. Hitz "zatarrak" edo irainak guztiz debekatuta egongo dira eta hauek erabiltzeak ondorio larriak ekarriko ditu erabiltzaileengan. Lehenengo aldiaren abisu bat jasoko dute soilik, baina bigarren alditik aurrera beraien kontua suspenditua edo blokeatua izango da, erabilitako hitzen arabera. Gero eta hitz zatarragoak, orduan eta zigor handiagoa.

Gure webgunea beste erabiltzaileengatik bereiztea oso erraza da dituen ezaugarriengatik. Esaterako, sorturiko plataforma honek, erabiltzaile askoei lana erraztuko die. Horrela, denbora asko aurreratu ahal izango dute beraien ikasketa prozesuan, eginbeharreko lanak azkarrago egitea ahalbidetzen du eta denbora gehiago izatea ikasketetarako. Webgune honek honek ez du inolako zailtasunik lanak, proiektuak, diseinuak.. igotzeko orduan, eta honek ere lana errazten du, ahalik eta denbora gutxien erabiltzeko haiek igotzen. Prestazioei dagokionez, plataforma honek hainbat gauza eskaintzen ditu. Alde batetik, diseinuak, proiektuak, lanak, animazioak, softwareak... igotzea ahalbidetzen du eta beste alde batetik, erabiltzaileek haiek erosteko aukera izango dute beraien ikasketa prozesuan erabili ahal izateko. Hau da webguneak eskaintzen duen zati garrantzitsuenetariko bat. Eskuragarritasunak ere berezi egiten gaitu, lanak, proiektuak, diseinuak... aurkitzea oso eskura daudelako. Horretaz gain, webgunea jaitzita duen edonork izango du haiek erosteko aukera. Beraz, ordenagailu edo mugikorretik erosi zenezake. Erosteko orduan, igorle edo saltzailearekin harremanetan jarri beharko zara eta prezioa adostu beharko duzue bion artean. Azkenik, erabilerraztasunak ere bereizten du webgunea, oso erraza baita aplikazioa erabiltzea. Gainera botoi bati sakatzea baino ez duzu behar duzun hori erosteko orduan, beraz, edonork erabili dezake eta oso erraz gainera.